PORRONTXO JAIAK 2015
IRAILAK 12 - 20
EGIA

Berriro Iraila badator eta, harekin batera, itsas kolpeen nahiz haizearen kontra, gure Porrontxoak.

Itxarondako jai maiteen eraginez itsaso bat jende egongo da kalean ospakizunetan. Forma onean daudenek lasterketa ekingo diote edo pilota partidak jokatuko dituzte, denak txarangaren arabera dantza egingo dugu eta, beti bezala, gustu guztietarako proposamenak ekarriko dizkigu jai-egitarauak.

DANDAIkook komunitatearen aldeko egitasmotan murgilduta gaude aspaldi. *Egia Bizirik* ekin batera (bigarren eskuko merkatu txikiak edo gizarte gutuna bultzatuz...) *Bagera* elkartearekin (San Joan bezperaren erramuak prestatzen) eta abar. Horretaz gain, auzoko jaiek gure elkartearen ikasturtearen hasiera abian jartzen digute urtero. Elkartean emakume asko ahaldundu gara. Geure txikitasunean, Egiako familietan ere gure nortasun aldaketek eragin dituztela uste dugu.

Hala eta guztiz ere DANDAIko emakume gehienak (Tejeria 10-12) jaia ikusi eta bizi ditugu gure seme-alaben edo biloben bidez: alkandora josiz, tortillak egiten etab. Aurten, ordea, protagonistak bagara: Porrontxoetako koadrilek jaitsiera iragartzen duen txeferoa botatzea eskaini baitigute. Oso harro gaude horregatik eta ilusio handiaz hartzen dugu jaietan parte hartzeko gonbitea. Beraz, hor egongo gara pozik eta emozioez beterik.

Eskerrik asko, bada, Porrontxoren eta Porrontxinaren erreketarekin batera auzoaren aurka joan den oro ere erre dadila!

Gaztetan gure seme-alabek zioten moduan:

Aupa PORRONTXOAK!

Gora Egia, alaitasunaren kabia!

Jaiak bultzatuz!

PORRON

egitaraua

Irailak

12 LARUNBATA
HASI MOTORRAK BEROTZEN!

12:00 GAZTE ASANBLADAREN EKIMENA.
12:00 HAUR JOLASAK pilotalekuan.
14:00 GAZTE BAZKARIA + TONBOLA mozorrotzeko.
16:30 STRIP BARRENE.
17:30 KONBINATU TXAPELKETA.
18:30 ELEKTROTXARANGA.
20:00 KONTZERTUA Plaza Haundin.

14 ASTELEHENA
AJIA ARINTZEKO... TOKA!

16:00 Haurrentzako APAR FESTA, GOMING ETA PUZGARRIAK **Navar Ekoizpenak**-en eskutik Plaza Haundin. Donostia Kultura.

16:00 **Egihaurgunea**-ren eskutik HAURREN EGIA txikientzat Plaza Haundin.

15 ASTEARTEA
SUDUR FINEN EGUNA!

17:00 Haurrentzako MARGO TAILERRA eta ERAKUSKETA **Arratibel Estudioa**ren eskutik (pintzelak norberak ekarri).

18:00 TXOKOLATE JATEA Plaza Haundin. Trikitilariak.

18:30 Haurrentzako TALO TAILERRA Plaza Haundin.

16 ASTEAZKENA
KULTOUR EGIAN BARRENA!

17:00 Haur eta gazteentzako JOLASAK Plaza Haundin.
18:00 **Egihaurgunea**-ren eskutik FAMILI JOLASAK Plaza Haundin.
18:30 Haurrentzako INDIOARENA EGIN TAILERRA **El Estudio** arte akademiaren eskutik Plaza Haundin.
19:00 Porrontxoetako VII. PINTXO LEHIAKETA Plaza Haundi

17 OSTEGUNA
GORA GU TA GUTARRAAAAK!!

17:00 BURUHAUNDI ETA ERRALDOIAK, **Lagunak** txarangak gidatuta.
17:05 MARGOTU AURPEGIA jaitsiera baino lehen Karmengo Ama kalean (60 zenbakiaren inguruan, Txondorra parean).
17:30 HAURREN JAITSIERA Porrontxinarekin, Porrontxorek Buruhaundiekin eta **Lagunak** txarangarekin.
18:00 Haurrentzako DJ **Porru**, **Kiliklon**-en eskutik Plaza Haundin. Donostia Kultura.
19:00 Gazteak eta ez hain gazteak... KARROZAK TUNEATZERA Ametzagaña 64-ra (trokola, radiadore ta juntakulataik ez, eskerrik asko).
20:00 PREGOIA ETA TXUPINAZOA, aurten Txondorra elkarte atzealdean (Ametzagaña 66).
20:01 KOADRILEN JAITSIERA azkena ipurdi gizena! Porrontxo eta Porrontxinarekin batera. MUSIKA **Telmo Trenor**-en eskutik.
20:30 **Lagunak** TXARANGA auzoan zehar.
22:00 KARAOKEA eta KARROZEN TXAPELKETA Plaza Berriko karpan.
22:30 MUSIKA EMANALDIA Plaza Haundin, **Gozo Gozo** taldearen eskutik.
22:30 Ohitura onak ez galtzeko **Izengabeak** TXARANGA auzoan zehar.

TXOJAIAK

18 OSTIRALA
HAUR, GAZTE TA BETERANOEN EGUNA!

08:00 DIANA Dultzaineroekin.

11:30 HAURREN ENTZIERROA Tejeria kalean.

12:00 **Plazara** IKUSKIZUNA **Tomaxenabenturak**-en eskutik Plaza Haundin. Donostia Kultura.

12:00 HAMABITAKOA Trikitilariek alaituta.

16:45 TRIKITALARIAK Aldakoneako egoitzara atton-amonak alaitzera!

17:00 BURUHANDI ETA ERRALDOIAK, Porrontxo eta Porrontxina eta BOLINGA MONSTER TRUCK. (Mozorroaren gaia: **Munstro bildurgarriak**).

18:00 **Antxeta-Ttanttakun**-en eskutik JOLASAK haurrentzat Plaza Haundin.

20:00 AFARI-MERIENDA haurrentzat Plaza Haundin (pilotalekuaren ondoan). Txartelak aurrez, Arkatza liburudendan.

20:00 KONTZERTUA **Kaktus** tabernan: **Artritis**.

21:00 BETERANOEN AFARIA Tejerian.

21:30 ZEZEN SUZKOA Tejeria kalean.

22:30 DANTZALDIA Plaza Haundin: **Trakets + Tajon Prieto y Los Kuajalotes.**

23:00 GUATEKEA Tejeria kalean.

23:00 BOLINGA MONSTER TRUCK.

00:00 **Baldarrak** TXARANGA auzoan zehar.

00:15 **"Libre"** BINGO ERRALDOIA Plaza Haundin.

Gazte (eta puretilen) eguna

14:00 GAZTE BAZKARIA.

17:00 GAZTE JOLASAK.

17:30 GOITIBEHERAK Gabriel Aresti kalean.

19:00 Antiguotarrei ONGI-ETORRI GIROTUA **Bolinga Monster Truck**-ekin.

22:30 **Right Eous Way** DJ-ak Plaza Berriko karpan.

19 LARUNBATA
ELKARTASUN EGUNA

08:00 **Lagunak** TXARANGA auzoan zehar.

11:00 PALA FINALAK frontoian **Amelia eta Julepe** trikitilariek alaituta.

11:00 JOTAK Plaza Haundin. Gora Ia Nabarra maritimaaa!

11:00 JOKU TRENA eta KATXARREANDO haurrentzat **Jokulandia**-ren eskutik Gladys Enean. Eta TXOKOLATE JATEA.

12:00 **Haurtxokoa**-ren eskutik TAILER EZBERDINAK Gladys Enean.

12:30 DANTZA KALE POTE **Koadrila Beteranoen** eskutik auzoan zehar.

12:30 FUTBITO FINALA Etxabe tabernako parkean. (izen ematea: Kata, Baztarre, Kosko, Agreda eta Anden).

14:30 **Denak Egiara** BAZKARI HERRIKOIA.

16:00 MUS TXAPELKETA Tejeria kalean, Agreda parean.

17:00 **Andoni** GITARRA JOLEA Plaza Haundin.

17:00 BURUHANDI ETA ERRALDOIAK **Kaña2kaña** trikitilariek alaituta.

17:00 ESKUBALOI TXAPELKETA kiroldegian **Egia Eskubaloia**k antolatuta.

18:00 HAURRENTZAKO KARAOKEA Plaza Haundin.

2015

18:00 ANTZERKIA Plaza Berrin:
"Ekoetikopatetikobikoa"
Atea Teatroaren eskutik.

18:00 BETERANOEN JOLASAK Tejerian.

20:00 **Trebeska** taldearen DANTZALDIA Plaza Haundin.

20:00 Porrontxo Jaietako XVIII. HERRI KROSA.

21:00 ZEZEN SUZKOA Tejeria kalean.

21:00 KONTZERTUA **Kaktus** tabernan: **B-Side.**

21:30 KOADRILEN AFARIA Tejeria kalean.

22:00 **Iraunkorrak** TXARANGA auzoan zehar.

22:30 KONTZERTUAK Plaza Berrin:
Izeberg + Ezustean + Wha Wha Buga Band.

22:30 MUSIKA EMANALDIA **Laiotz** taldearekin Plaza Haundin.

23:00 DJ SAIOA **Estefano**ren eskutik Tejeria kalean, Agreda parean.

00:30 KALEJIRA HERRIKOIA Porrontxo, Porrontxina eta Zanpanzarrekin. Ondoren AURRESKU herrikoia.

01:00 ROCK KAM BROOM!!! auzoan zehar.

01:00 **Baldarrak** TXARANGA auzoan zehar.

02:00 **"Libre"** BINGO ERRALDOIA Plaza Haundin.

20 IGANDEA
EUSKAL JAIA

07:00 TXARANGA HERRIKOIA **Jatorrenak** (gaupaseroa ez esateatik).

08:00 GOSARIA Plaza Haundin. Menua: OILASKO ERREA.

11:00 PILOTA FINALAK frontoian. **Amelia eta Julepe** trikitilariek alaituta.

11:00 **Egialai** taldearen KALEJIRA auzoan zehar.

12:00 SAGARDO DASTAKETA Plaza Haundin trikitilariekin.

14:30 BAZKARI HERRIKOIA Plaza Haundin **Donosti-Gain**, **Ur Zaleak** eta **Arrano** elkarteek antolatuta.

17:00 HERRI KIROLAK Plaza Haundin trikitilariekin.

17:00 MUSIKA EMANALDIA Plaza Berrin.

19:00 SARDINA JATEA Plaza Haundin.

19:30 ERROMERIA **Ezten Giro** taldearekin, Plaza Haundin.

20:00 **Jatorrenak** TXARANGA auzoan zehar.

21:30 KALEJIRA.

22:00 AZKEN TRAKA.

00:00 GUI AR DE GUORLD, **Ostotsa** tabernan.

ZERO ZABOR JAIA

INFO+
www.porrontxojaiak.org
porrontxojaiak@porrontxojaiak.org

MUGIKORREAN

PORRONTXO JAIAK
2015 EGIA Irailak 12-20

PORRONTXO JAIAK 2015
EGIAN IRAILAK 12-20